



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

2015-2019 AGINTALDIAREN LABURPENA

Iepa aranztar:

Lau urte pasatu dira Arantzako Herriko Etxera ailegatu ginenetik. 2015. urtean gogotsu ekin genion agintaldi berriari eta ordutik hainbat kontutan ibili gara. Bidea ez da erraza izan, baina herriarentzat ahalik eta hobekien egiten saiatu gara. Ondoko lerro hauetan 4 urteen laburpen ttiki bat egin dugu. Bide batez, talde berriari eskerrak eta indarrak eman nahi dizkiogu.

ESKOLAKO LANAK

Eskolaren erabilera etengabea da eta bertan hainbat berrikuntza egin ditugu. **3 gela** berri sortu ditugu eta **patioaren** zati bat estali. Bertzalde, **kaldera** berria paratu dugu. **Argiteria** ere aldatu dugu eta LED argiak paratu ditugu. Horri esker, gastuak murriztea lortu dugu.

Leiho gehienak ere aldatu ditugu eta berritzeko falta direnak aldatzeko dirulaguntza eman digute.

MENDIA

Arantzan hain preziatua dugun mendi aldean ere hainbat lan egin ditugu. Itsaszelaieta, Muniltza-Oilargata eta Gainsenberro-Goiko Gaina pistak moldatu ditugu. Mugaraitik Axtalkora doan pista ere zabaldu dugu.

Gainera, landaketak ere egin ditugu, Ametxoko, Bulatxiki eta Azkin. Bertzalde, pinadiak nahitaez bota egin behar izan ditugu, gaitzak erabat hondatu baititu. Ereku horietan berriz ere landaketak egiteko proiektua dago, eremu batzuetako landaketak Nafarroako Gobernuak bere gain hartuko dituelarik. Bertzalde, Nafarroako Gobernuaren mendiko komunalen ordenazioan sartu gara.

HIRIGINTZA

Azken boladan herriko karriketan lan ugari egin ditugu. **Eliza Karrikan** eta **Goiko Karrikan** ur zikinak eta teilatuko urak bereizi ditugu eta hori aprobetxatuz, argindarra, argiteria eta telefonoa lurperatu. Zola moldatu ere egin dugu. **Salbatoren** ere ur zikinak eta teilatukoak bereizi eta zola moldatu dugu. **Karrika Nagusian**, berriz, bidea zabaltzeko proiektua martxan dago, baita Putxutxun kotxeek buelta emateko proiektua ere. **Goienburun** ere zola berritzeko obra jadanik esleitu da.

Herriko lur urbanizagarri eta ez urbanizagarrietako hainbat arau (granja, txabolen, etab. ingurukoak) aldatu ditugu eta **PLAN OROKORRA** martxan da. Hau egiteko herritarrak gonbidatu genituen eta herritarren parte-hartzea handia izan da.

Katastroa eguneratu. Katastroan agertzen zena eta errealitatea bat ez zetozenez, eguneratu egin dugu.

Ondasunen baloreak berritu (*ponencia valoración*). Nafarroako Gobernuak agintzen duenez, 5 urtero egin behar da. Hau beharrezkoa da, berritzen ez bada ez baita laguntzarik izanen. Lan hau 2018an egin genuen.

EMAKUMEEN BARATZEA

Historiak isilarazitako Bortzirietako emakumeei ahotsa emanez, Emakumearen Memoriaren Baratzeari tokia eskaini diogu Arantzán. Hasieratik babestu dugun ekimena izan da eta ohorea izan da halako proiektu bat Arantzán egin izana. Hainbat alditan aritu gara baratzea txukun mantentzeko lanean. Modu batera edo bertzeraz zuetako aunitz hurbildu zarete baratzera auzolanean aritzera eta hortaz, eskerrak zuei ere.

DIRU-KONTUAK

Gastuak gutitu eta sarrerak gehitu egin dira. Honela bada, 2014 urte bukaeran 368.000€ko zorra zuen Arantzak, eta 2018 bukaeran 252.000€koa. Datuek bide onetik goazela erakusten dute.

PARKEAN ADINEKOENTZAKO TRESNAK

Hanka eta besoak lantzeko 2 tresna paratu ditugu: Nahi duzuen guztien eskura dituzuen parkean.

ZAKURRAK

Zoritxarrez zakurrek herriko karraketan libre segitzen dute, horrek dituen ondorio guziekin: kaka nonahi, herria zikina... Berriz ere zakurrak herriko karraketan ezin direla libre ibili eta jabeek zaindu behar dituztela gogorarazten dizuegu.

KULTURA ETA KIROLA

2016an Arantzako Mendi Lasterketa martxan paratu genuen Ekaitza Elkartearekin elkarlanean. Urte berean Trikitixa Jaialdia antolatu genuen eta ordutik urtero ospatu dugu. Jaialdiaren aitzakian, herriaren alde musu-truk egiten duten lana eskertuz, hainbat herritar ere omendu nahi izan ditugu: Gregorio Mitxelena, Pantaleon Errandonea, herriko txistulariak, Guraso Elkartea, Ekaitza Elkartea, Gazte Asanblada, Emakumeen Taldea eta Zahar Txoko. Auzolanaren eredu zaretelako, eskerrak aunitz berriz ere! Bertzalde, momentu jakinetan kultur eta kirol hitzorduak antolatu eta babestu ditugu. Nafarroako Akordeoilarien Topaketa, Berako Musika Eskolako emanaldia, Aibarko abesbatzaren kontzertua... Filmazpiten eskutik filmak ere eskaini izan ditugu.

Hitz guttitan horixe izan da lau urteok eman dutena. Eskerrak aunitz zuen konfiantzagatik eta herrian barna elkar ikusiko dugu. Segi dezagun denon artean Arantzaren alde lanean!